



# ALBIZTURREN ERE TXOTXONGILO FESTA

Lehen aldiz egingo duten festan txotxongilo tailerra eta antzerkia izango dira gazteentzat, etzi > 5

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2007-11-22**

VURTEA 1294.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Bilgune Feministak mobilizatzeraz deitu du genero indarkeriaren aurka

**TOLOSALDEA** Igandean izango den Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi

**SENTSIBILIZAZIOA** Berdinsareak 12 eta 15 urte arteko gazteei zuzendutako kanpaina abiarazi du aurten 2

**Carlo Peña igerilariak zazpigarren aldiz jaitsi du Sella ibaian bizkarrez**

**TOLOSA** 19 kilometroko ibilbidea egiteko 4,5 ordu behar izan zituen 3

**LUIS MARI GARTZIA**  
MUSIKAKO IRAKASLE OHIA

«Min ematen du asko landu duzun emanaldi batera jende gutxi joateak»

**TOLOSA** Musika eskolan klarineta eta saxofoia irakatsi du 30 urtez 7

**Bide ertzean taldearen 'Non dira' diskoaren azkenetako emanaldia bihar Gurea aretoan**

**VILLABONA** Talde tolosarrak 22:30ean emango du kontzertua 4



Irran, Loatzoko musika eskolako ikasleek instrumentu ugariarekin eta beraien ahotsekin kaleak alaitu zituzten. I. GARCIA

## ZEZILIAREN OMENEZ, KALERA

**TOLOSALDEA** Kalejirak egin zituzten Loatzoko eta Tolosako musika eskolako ikasleek 6

*Wanna Eat? See You*

Pintxoak-otartekoak-plater konbinatuak-sandwichak-hanburgesak  
Kartako menua-taldeentzat menuak-sagardotegiko menua

Usabel Kiroldegia  
Tolosa Tel.: 943 577573  
[www.bidebide.es](http://www.bidebide.es)

*bidebide*  
restaurant&bar

Kale Nagusia 45  
943 247 469  
Villabona

**o'baba**  
KALEJIRAK

Razioak,  
otartekoak  
eta  
pintxoak



Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea egin zuten joan den urtean, Indarkeria Sexistaren Aurkako Nazioarteko Egunean. HITZA

# Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean mobilizatzeko deia luzatu du Bilgune Feministak

**Gizartea** » Emakumeon kontrako indarkeriari aurre egitea denon ardura da. Zuk zer egingo duzu? izango da lelo nagusia

## ESTI ZEIZA

Igandean Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko eguna da. Hori dela eta, *Emakumeon kontrako indarkeriari aurre egitea denon ardura da. Zuk zer egingo duzu?* lelopean, igandean mobilizatzeko deia egin du Bilgune Feministak. 19:00etan elkarretaratzea egingo dute Triangulon.

Mundu osoan salaketarako erabiliko den egun horretan, «Euskal Herrian, eta urrutira joan gabe, gure eskualdeetan, indarkeria sexistak bizirik jarraitzen du». Hori baieztatzeko, aipagarriak dira, pasa den hilabetean Zizurkil eta

Villabonan erasotutako izan ziren bi emakumezkoak.

Bilgune Feministako kideek agertu bezala, gehienetan, indarkeria sexista tratatu txarrekin lotzen bada ere, «ezin dira ahanzi, kalean, etxean, eskolan, lantokian, kartzelan... egunerokotasunean ematen diren kasuak». Beraien ustez, hau, sexuen arteko botere harremanak eragiten duen indarkeria fisikoa zein psikikoa da. Honenbestez, emakumeek jendartearen esparru guztietan sufrizten duten indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea dutela aldarrikatzen dute.

## Indarkeria sexista denon arazo

Indarkeria sexista arazo soziala dela deritzote bilgunek, «jendarte patriarkaletik datorrena». Halaber, hau konpontzeko benetako erantzun soziala eta sexuen arteko botere harremanen iraultza beharrezkoa dela azaldu dute.

## ANOETAN, KAFE TERTULIA ETA IKASTAROA

Anoetako Udalak hainbat egitasmo antolatu ditu datozen egunetarako. Alde batetik, kafe tertulia egingo dute astelehenean, 18:30etik aurrera, Arkupe tabernan. Hemen, ekitaldiari hasiera emateko *Empezar de nuevo* bideoa eskainiko dute. Ondoren, solasaldia egingo dute, bortizkeria sexistaren inguruan. Solasaldia Tolosako Udaleko berdintasun teknikaria den Josebe Iturriotzek dinamizatuko du.

Kafe tertuliaz gain, Jarrera baikorraz bizi izeneko ikastaroa ere antolatuta dute. Ikastaroa doakoa da. Hiru saioretako izango da, eta hauetako baita bi ordutako. Dena den, egunak eta ordutegia partaideen arabera zehaztuko dituzte, bilera batean. Interesatuak, izen-ematea hilaren 30a baino lehen egin beharko dute, udaletxean bertan edo kiroldegian.

Emakumei autodefentsarako deia egin nahi diete, «aski da esan eta gure tresna indibidual zein kolektiboak sortuz, beldurrik gabe, gure eskubideen jabe izanik, sistematikoki eragindako harreman hierarkikoei aurre egingo diegu».

Jarrera indibidual aktiboarekin, autoestima landuz, emakumei antolatzen die egiten diete, «denon artean posible delako harreman berriak sortzea».

Bilgune Feministakoek nabarmendu dute, «erasotzaileek ez dutela lekunik gizarrean, eta jendeak ezin dituela jarrera horiek babestu, ez eta konplize izan ere.» Honenbestez, edozein motatako eraso eta jarrera gaitzetsi dute eta gaineratu, emakumeentzako espazio libreak sortu eta berreskuratu behar direla, non jarrera hauek ez duten lekunik izango. Hori dela eta, Bilgune-nekoek adierazi dute, erasotzaileei aurre egin eta salatu egin behar direla «gure herrietan, ez ditugula nahi argi utziz».

## Ekitaldi ugari egun hauetan

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean harira, Berdinsareak

gazteen sentsibilizaziora zuzendutako kanpaina bat jarri du abian. Hala, Tolosako Udalak bat egiten du egitasmo honekin.

Emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria «neska eta mutilen sozializazio desberdinean dago». Eta desberdintasun hori areagotu egiten dute bortxakeriaren legitimatze prozesuek, gizarrean zein kultur mailakoak izan. Honenbestez, egungo datuek, emakumeenganako indarkeria gazteen artean errepikatzen ari dela berresten dute. Hori dela eta, Tolosako Udalak, beste udalerrri batzuen artean, kanpaina hau garatu du. Egitarau honen helburua gizonen eta emakumeen ardura den «arazo larri» honetan sakontzea da.

Sentsibilizazio prozesu horretan, egun hauetan gauzatuko dituzten ekintzez gain, Aurrekoetan, Tolosako Udaleko Berdintasun Teknikaria den Josebe Iturriotzek, zenbait hitzaldi eskaini zizkien Orixe eta Laskorain ikastetxeetan, sentsibilizazioa lantzeko. Bestalde, Aparteko Osoko Bilkura batean, Udalak hilaren 25erako Deklarazio Instituzionala aho batez onartu zuen.

## Laburrak

### 'Rhythm Is It' filme alemaniarra gaur Leidorren

**KULTURA** » Zine forumean, Thomas Grube eta Enrique Sanchez Lansch-en *Rhythm Is It!* (*Hau erritmoa!*) filma izango da ikusgai gaur Leidor Zinemaren. Ohikoa den bezala, lehen saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean. Dokumental alemaniar honek 2003an eginiko esperimendu pedagogiko eta artistiko interesgarri bat deskribatzen du. Berlineko Orkestra Filarmonikoa zuzentzen ariutako lehen denboraldiari amaiera emateko, Sir Simon Rattlek musika klasiko eta balletarekiko ezagutzarik ez zuten arraza guztietako 250 gaztetxo osatutako balleta osa zezala eskatu zion Royston Maldoon koreografoari. Bestalde, Txo-txongilo jaia dela eta ez da zine emanaldirik egongo asteburuan.

### Usabalgo abonatu lan taldea osatzeko asmoa

**KIROLA** » Udak azaroren 12an eginiko Kirol Batzordean, Usabal kiroldegiaren inguruan abonatu lan taldea sortzea ebatzi zuen, eguneko martxa aztertzeko, erabilpena kontrolatzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Taldea abonatuak (2 gizon, 2 emakume), klubetako ordezkariak, Usabal kiroldegiko gerenteak eta udal kirol teknikariak osatuko dute eta hilabetez behin erabiltzailearen ikuspegitik Usabal kiroldegia aztertzea izango dute helburu. Interesatuak 943697455 (kirolak) telefono zenbakira deitu azaroren 30a baino lehen.

### Laskorain ikastolaren jaialdirako sarrerak salgai

**AISIA** » Tolosako Laskorain Ikastolako 40 urte bete ditu aurten eta, beste ekitaldien artean, jaialdi berezia antolatuta du datorren astera. Jaialdia abenduaren 1ean izango da, 19:00etan, Usabal kiroldegian. Jaialdirako sarrerak salgai daude Ikastolako idazkaritzetan (Sakramentinoak eta Usabal) eta Kilometroak 2008ko dandan (Tolosako Kale Nagusia 15-Berdura plaza) 6 eurotan helduentzat eta 3 eurotan ikasleentzat.

## B Blogteka ainfo

### Herriko zazpi musika talderen kontzertua

Datorren igandean, 12:00etan, kontzertu berezia antolatuta du Musika Bandak, Leidor aretoan. Hau, Santa Zezilia, musikariaren zaindariaren omenez egingo da. Herriko zazpi musika talde izango dira bertan partaide.

### Tolosako Musika Banda

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/musikabanda>

## » TOLOSAN BURUTUKO DIREN EKINTZAK

### Azarokak 22, gaur

■ **19:00.** Iciar Bollainen *Te doy mis ojos* filma ikusgai Errota Haur Liburutegian.

■ **Ikusgai.** Errota Haur Liburutegian emakumeari eta indarkeriari buruzko liburuaren erakusketa egongo da.

### Azarokak 23, bihar

■ **Murala.** 10:00etatik aurrera, Eva Menak indarkeriari buruzko mural bat margotuko du Triangulo plazan.

■ **Esekitokia.** Orixe eta Laskoraingo ikasleek esekitoki bat egingo dute Triangulo plazan, 10:00etatik

aurrera. Hemen, emakumeenganako indarkeriaren inguruan argitaratutako albizeak zintzilikatuko dituzte.

■ **Klownklusioak.** Virginia Imazek burututako ekintzei buruz bere ikuspuntu berezia emango du.

### Azarokak 25, igandea

■ **19:00.** Bilgune Feministak deituta elkarretaratzea Triangulo plazan.

■ **19:30.** Udalak deituta, elkarretaratzea Triangulo plazan.

■ **19:30.** Egunean zehar, zapi beltz batekin estalita egongo dira hiriko eskulturak.



Carlos Peña eta taldekideak Sella ibaia jeitsi ostean. HITZA

## Zazpigarrenez jeitsi du Carlos Peñak Sella igerian bizkarrez

**Kirola** » 4,5 ordu behar izan zituen 19 kilometroko ibilbidea egiteko; hurrengo erronkan pentsatzen ari da dagoeneko abenturazalea

### ERREDAKZIOA

Asturiasko Sella ibaia ezaguna da, bertan piraguaz egiten diren jeitsierengatik. Baina horretaz gain, igerian ere egin ohi dituzte jeitsierak udazkenean, bertan parte hartu du iragan asteburuan Carlos Peña tolosarrak. Bere zazpigarren aldian zian den honetan, 4,5 ordu behar izan zituen ibilbide osoa egiteko.

Arriondas herrian hasi zuen erronka Peñak, eta 19 kilometroko bidea zuen aurretik Ribadesellara iritsi aurretik. Berarekin batera, bidelagun izan zuen abentura guztietan alboan izaten duen taldea. Hauen laguntza beharrezkoa izaten da, bai edozer gertatuz gero aratzeko, bai eta edatekoa eta jatekoa emateko ere.

Jeitsiera oso tenperatura bajaran

egin beharra izan zuen tolosarrak; igerian hasi zenean gradu bat zero azpitik zegoen, eta uraren tenperatura 8 graduko zen. Hala, «berziki gogorra» izan zen abentura bere lehendabiziko orduan, baina, orduak aurrera egin ahala, hau da, eguerdirako epeltzen joan zen giroa.

### Ur falta handia ibaian

Baina, tenperaturaz gain, izan zuen Carlos Peñak beste zailtasunik ere, ur falta, hain zuzen. Urteko sasoi honetan ur gutxiago izan ohi du, eta presako atekak ez dituzte irekitzen, beraz, sakontasuna ez da oso handia izaten.

Honek oso arriskutsu egiten du igeri egitea, kolpeak hartu baititzaitezke. Dena den, «kasu honetan ez dugu zauri larririk izan, soilik piragua baten erorikoa, beraz, zortea izan genuen», azaltzen du Peñak. Azkenean, 4,5 ordu behar izan zituen lana osatzeko.

Amaieran Ribadesellako Udalak garaikurra eman zion dagoeneko hurrengo erronkan pentsatzen ari den tolosarrari.

## Rock doinuak eta brasildar erritmoa bihar eta etzi, Bonberenean

**Musika** » Obligaciones, 33 D'envit, Mulambo eta Euskalduna naiz eta afro nago taldeak ariko dira 22:30etik aurrera

### ERREDAKZIOA

Musikaz beteriko asteburua antolatuko aste honetako ere Bonbereneakoek, izan ere, bihar eta etzi lau talde ariko dira.

Bihar, Obligaciones eta 33 D'envit taldeak ariko dira, 22:30etik aurrera. Obligaciones gasteiztarrak dira, eta rock&roll doinuekin datoz, eta 33 D'envit, valentziarrak dira eta Niputocaso beraien azken disko aurkeztuko dute.

Etzi, berriz, Mulambo eta Euskalduna naiz eta afro nago taldeak ariko dira 22:30etik aurrera. Brasildar erritmoa eta afro musikarekin festa giroa jarriko dute.

## Eskualdeko idazleen berrienak

**Literatura** » Karlos Linazasoro eta Joxemari Iturralde tolosar idazleen liburu berriak aurkeztu zituzten atzo

### ERREDAKZIOA

Karlos Linazasoro eta Joxemari Iturralde idazle tolosarrek lan berri bana dute kalean. Haur literatura alorrekoak dira bi liburuk; *Etzi*

izena du Karlos Linazasororenak, eta *Olibia, Risky, Txop Suey eta Mohamed*, berriz, Joxemari Iturralderen lanak.

Hauxe da *Etzi* liburua kontatzen duena: Bruno hamahiru urteko mutikoa da. Ezin ditu beste neska-mutikoez egin ditzaketen gauza asko egin; dohain handiak ditu, baina gabeziak ere bai. Musu indartsuak ematen dizkie gurasoei, neskalaguna ere badu, burugogorra da, bihurria, maitagarria...

Etxean asko estimatzen dute, baina orain Brunoren eserlekua hutsik dago.

*Olibia, Risky, Txop Suey eta Mohamed* liburuan Riskyk eta bere koadrilakoez beti dituzte historia eta abentura interesgarriak kontatzeko, bihurrikeriak, barrabaskeriak, adar jotzeak... Liburu honean, baina, Riskyren lagun koadrila handituz doa, beren ikasgelara atzerritarrak etortzen hasiak direlako.



## Usabal MT-Tolosa jeitsieratik at

**KIROLA** » Pauso garrantzitsua eman berri dute Usabal MT-Tolosa mahai-tenis taldekoek, izan ere, azken bi garaipenekin jeitsiera postuetatik aldentzea lortu dute. Azken garaipena iragan asteburuan izan zen,

CTM Burlataren aurka, euren etxean, 4-0, hain zuzen. Hurrengo partida Usabalen jokatu dute, Kraft Atletico Hernanirenen aurka, etzi, 16:30ean. Bestalde, CD Olaederra Ak eta Bk igandean jokatu dute. HITZA



## Tolosako Babarruna Elkartera bisita

**KULTURA** » Tolosako Babarruna Elkartera duela 13 urte sortu zen, eta azken 3 urteetan batez ere, hainbat ekoizte ezberdinen bisita ugari jaso ditu. Hala, herenegun Lizarra eta Gares herrietatik etorri ziren bertako esperientzia ezagutzera. Tolosako Babarruna Elkarteroak Tarbesko Babarrunaren kooperatiba ezagutzera joan ziren duela gutxi, eta «haiek in Europa mailakoa izan daitekeen proiektu komun bati buruzko lehen hitzak trukatzeo aukera izan genuen», azaltzen dute. HITZA

**@ Elkarriketa digitala.** Gari Uranga Realeko jokalaritari elkarriketa digitala egingo diogu gaur 18:30ean. Galderak egiteko aukera daukazu, beraz. Horretarako, [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) helbide elektronikoan edo [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)-n idatzi beharko dituzu galderak. Zure izen-abizenak jartzea ere komeni da. Gainera, larunbatean egunkarian argitaratuko dugu elkarriketa osoa.

[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Autoa.** 206 GTI. 4 urte. 7.500 euro. Aukera bikaina. 656 41 02 80.

### BESTERIK

■ **Zakurra.** American Stafford Terrier arrazako zakurra oparitzen da pertsona arduratsu bati, ezin dugulako zaindu. 606 63 84 72.

# 'Non dira' ren zuzeneko azkenetako emanaldia bihar

**Villabona** » Bide Ertzean talde tolosarrak bere azken diskoaren kontzertua emango du bihar, 22:30ean, Gurea aretoan

**IMANOL GARCIA**

Bide Ertzean talde tolosarrak kontzertua emango du bihar Villabonako Gurea aretoan, 22:30ean. Imanol Ubeda taldekideak azaldu duenez, «gogoz gaude Gurean jozteko. Asko gustatzen zaigu aretoa». *Non dira* diskoa zuzenean ematen duten azkenetako emanaldia izango da, datorren urteari begira Ubeda anaiak Deabruak Teilatuetan taldeari emango baitiote lehetasuna.

«Oso gustura» daude Bide Ertzean taldekoak *Non dira* diskoaren kontzertuekin. «Izugarrizko harrera izan du», dio Ubedak. «Memoria historikoa berreskura-



Bide Ertzean taldearen zuzeneko emanaldi batean. HITZA

tzeko ahalegin bat izan da. Jendea hurbiltzen zitzagun kontzertuen amaieran beraien bizipenak azaltzeko».

«**Oso ona**» Gurea aretorako Diskoak duen soinurako Villabonako Gurea aretoa «oso ona» dela dio Ubedak. «Azkeneko kontzer-

tuet ematen ari gara eta gogo handiarekin gaude emanaldirako», gaineratu du Bide Ertzeaneko taldekideak.

Sarrerak bost euro balio dituurretik salgai dauden tabernetan eskuratuz gero. Leihaitlan erosiz gero zazpi euro ordaindu beharko dira.

# Transportes Lakunza taldeak 5-4 galdu du UPV-Alavaren aurka

**Villabona** » 3-0 galtzen jarri ziren billabonatarrek eta horrek partida guztia baldintzatu zuen; hiru gol sartu zituen Pascualek

**ERREDAKZIOA**

Villabonako areto futboleko Transportes Lakunza taldeak 5-4 galdu zuen aurreko asteburuan UPV-Alavaren aurka. Hasiera txar batek partida baldintzatu zuen: «24 segundotara sartu ziguten lehenbiziko gola. Badira norgehiagoka batzuk horrela hasten garela», azaldu dute taldekideak. Hasiera txarrak izaten dituztela eta orain arte buelta ematen ziotela emaitzari azaldu dute, baina aurreko partidaren ez zuten lortu. 3-0 emaitzarekin segituan jarri ziren gal-

tzen. Ez zuten talde bezala jolasten eta jokaldi bakan batean Asier Etxanizek gola sartu zuen 3-1 emaitza jarriaz. Bazirudien partidaren sartuko zirela, baina beste jokaldi batean UPV-Alavak laugarren gola sartu zuen eta emaitza horrekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian defentsan gehiago saiatu ziren billabonatarrek. Aurkariak ez ziren iristen lehenengo zatian bezala eta arrisku gehiagorekin iristen ziren Transportes Lakunzakoak. Sergio Pascualek bi gol sartu zituen eta gero beste bat jaso zuten. Pascualek hirugarrena sartu zuen, denboraldiko bigarrenengo *hack tricka* lortuz. Markagailua 5-4 zegoela, UPV-Alavako taldea «larri jarri genuen eta urduritasunak ez zien uzten gure atezainarengana iristen». Aukera paregabeak izan zituzten ber-

dinketa lortzeko baina azkenean ez zuten lortu. Esku hutsik buelta behar izan zuten Gasteiztik eta gainera baja batzuk izango dituzte hurrengo partidarako. Etzi jokatuko dute, 18:00etan, Olaederran Artamoro taldearen aurka.

**Txanpaka**

Transportes Lakunzaren bigarren taldea da hirugarren mailan ari den Txanpaka. Zortzigarren jardunaldian iritsi da beraien lehenbiziko garaipena. Aurkaria Tecun taldea izan zen. Txanpaka taldeak babesle bila jarriatzen du.

**Loteria**

Transportes Lakunza taldeak loteria ateratu eta salgai dago Villabonako Erreka, Xiker eta Maxola tabernetan, Confecciones Lakunza dendan edo jokalarie eskatuta.

## B Blogteka info

# Zubi lana

**TXOLARRE IRRATIAREN BLOGA**

Maite ditugu gure ohiko euskarriak. Papera edo irratihinen bitartez, Tolosaldearen berri emateari ez diogu sekula utziko. Baina teknologia berriek, euskarazko komunikabideok egiten dugun lana, lau haizetara zabaltzeko bidea ematen digute. Orain zazpi urte, Txolarre Irratia sortu genuenean, burutik pasa ere ez zitzaigun egin, internet bidez, irratia munduko beste puntan entzun ahal izango zenik. Baina egin egin dugu, eta gureak badu tokia sarean, erdarazkoen pare gainera. Maila eta neurri berean. Guk egiten dugun lana osatzen, hobetzen eta zabaltzen laguntzen digute teknologia berriek. Baina hori bakarrik ez! Elkarrekin aritzeko aukera ere ematen digute. Urteak dira, Txolarre Irratia, Arro-

sa Irrati Sarearen kide dela. Euskal Herriko 20tik gorai irratia biltzen dituen sarea ehuntzen laguntzen digu teknologia berriak. (...) Blog honek ere zeregin bera izango du: eskualdeko euskarazko egunkari eta irratia arteko zubi lana egitearena. Tartean joango dira gure hausnarketak, irratian izango ditugun kontuen aurrerapenak, agenda oharrak... Eta noski, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak eraberrituta dakarren web guneak, bere anai-bikia izango du sarean: [www.txolarre.org](http://www.txolarre.org). Hemen irakurri ahal izango dituzuen albisteetako protagonistetako askok esandakoak, bertan topatuko dituzue, audio formatoon. Ekin diezaiozun beraz bidetara! [www.tolosaldeko hitza.info/blog/txolarre](http://www.tolosaldeko hitza.info/blog/txolarre)

## Laburrak

### 'Alpi-Mambo-Trango' emanaldia Mendi Astean

**VILLABONA** » Aizkardiren Mendi Astearen baitan gaur izango da azkeneko hitzaldia. Herriko zenbait gazte emango dute *Alpi-Mambo-Trango* izenburupean ikus-entzunezkoa. Bestalde, igandean amaituko da astea Kanaletatu ibilaldiarekin eta ondorengo bazkariarekin. 08:30ean elkartuko dira Olaederraren ondoan.

### AHTri buruzko eztabaida prozesuan, mahai-ingurua

**ANOETA** » AHTren inguruan eztabaida prozesua antolatu dute aste honetan. Gaur mahai-ingurua egingo dute eragile ezberdinen artean. Bertan AHTren inguruko zailentzak argitzeko eta eztabaidatzeko aukera izango da. Parte-hartzaileak LAB sindikatuko Jon Artetxe, EHNE sindikatuko Eneko Karrera, ESK sindikatuko Kepa Olaiz eta Aralar alderdiaren Dani Maeztu izango dira. Udaletxean izango da mahai-ingurua, 19:00etan.

### AHTri buruzko eztabaida prozesuan, mahai-ingurua

**AIZTONDO** » Manuel Larramendi Kultur Bazkunak irteera antolatu du abenduaren 15erako, Arabako Iruña-Veleiako aztarnategia eta Gasteizko katedrala ezagutzeko xedez. Txango hori *Euskal Herrian Barrena* egitasmoaren urrats berri baten hasiera izango da, aurrerantzean herriar gutzietan zuzenduriko txango monografikoak antolatuko baititu Larramendi Bazkunak, Euskal Herriko eskualdeak eta bere errealitatea hobe ezagutzeko. Lehenengo irteeran parte hartzeko bi aukera daude: bazkariarekin (30 euro) eta bazkaririk gabe (18 euro). Informazio gehiago txangoak@topagunea.com helbidean edo 943 69 64 50 zenbakian.

### AHT, araztegia eta errausgailua, hizpide

**ADUNA** » Adunako Kultur Astearen baitan, gaur hitzaldia izango da, 20:00etan, kultur aretoan. AHT, araztegia eta errausgailua izango dira jorratuko diren gaiak.

txokoa **h**

**Hegaldia + egonaldia + futbol partidua**  
ZOZKETA

2 pertsonentzat


- HEGALDIA
- BI GAUERAKO HOTELA
- **LIVERPOOL / BOLTON WANDERERS** partidurako sarrerak Liverpooleko Anfield estadioan **abenduak 2an**

Gainera, Xabi eta Mikel Alonso tolosarren kamiseta bana!



digitala **h**  
@

Gaur,  
**GARI URANGA**  
Realeko jokalariekin elkarriketa digitala.  
**18:30**etan  
HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.



Bidali aurrez zuen galderak [tolosaldean@tolosaldeko hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko hitza.info) helbidera. Webgunean bertan ere galderak bidali ahal dituzue.

## Leire Olaberria txirrindularia mundialetan parte hartzera joango da bihar

N. URBIZU

Leire Olaberria ikaztegiatarra Sydneyko Munduko Kopako lehen fasea egitera joango da pistako txirrindulari gisa, Cempa-Euskadi taldearekin: hilaren 30ean, abenduaren lehen eta 2an jokatuko dute bertan. Guztira 395 txirrindulari ariko dira bertan, eta Olaberria Cempa-Euskadi taldearekin joango da.

Ondoren, abenduaren 3an Beijing-era joango da. Bertan, Munduko Kopako bigarren fasea jokatu du. Olaberriarekin batera, Unai Elorriaga, Raul Mena eta Francisco Mena joango dira, eta Olaberria erekin dituen probak hauek dira: jazarpena, scratch eta puntuazioa. Munduko Kopako emaitzak Joko Olinpikoetarako balia garrantzitsua da bertan ongi aritzea.

## Laburrak

### Gaur elkarretaratzeak Zizurkilan eta Tolosan

AHT • Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak gaurko elkarretaratzera deitu du. 19:30ean Tolosako Triangulon eta Zizurkilgo Joxe Arregi plazan egingo dituzte. AHT ez inposatzearen alde agertuko dira bertan. «Trenaren aurka dauden guztiak daude gonbidatuta», Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak esan bezala.

### Aurrera-Saiatz taldeko senior mailakoak, Ibarran

PILOTA • Bihar eta etzi Ibarran Aurrera-Saiatz pilota eskolak hiru norgehiagokak jokatuko ditu. Biharkoan senior mailakoa da 20:00etan, eta aurkariak Ozkarbiokoak dira. Etziko bi partidetan ere seniorrak ariko dira 18:00etatik aurrera; lehenengoan Usurbil da kontrako bikotea eta bigarrenean, berriz, Zazpi-Itturri.

# Umeentzako tailerra eta antzerkia etzi Txotxongilo Festa berriaren baitan

Albiztur • Kultur ekintzak bultzatu nahian ekitaldi gehiago antolatu nahi dituzte, eta etzikoa da Udal berriaren lehenengo



Txotxongilo tailerra egingo dute 16:30ean, eskolan. ESTI EEZIZA

ERREDAKZIOA

Etzi, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia hasten dela aprobetxatuz, Txotxongilo Eguna antolatu dute Albizturten eta umeei zuzendua dago batik bat. Hasteko, 16:30ean Asvinenea antzerki taldekoen eskutik txotxongilo tailerra egingo dute eskolan. Hemen, antzerki taldekoek ekarritako materiala erabiliko dute, eta hauek inbentariatu zituzten, eta hauekin jarduko dituzte. Ondoren, 19:00etan, Gorringo antzerki taldearen Asto bat hipodromoan (Bernardo Atxagaren liburua oinarrituta emanaldia izango da Kultur Etxean.

### Antzerkiaren laburpena

Antzerkiaren kontatuko denaren laburpena honakoa da: Lasarte-Vichien munduko zaldi lasterketa ospetsuenak egiten ziren. Maurizio astoa zaldien morroia zen eta egunaz lanagotik egiteaz aparte ikeragariak isekak jasaten bazituen ere, gauaz, bere Astronomia libururaren eta teleskopioaren, ez zegoen hipodromo osoan berabaitu zorian suagorik.

Maurizio astotxo astronomoa lagun dugula, konstelazioetan barrera ibiliko gara eta teleskopioz ikus daitezkeen gauza miretsagarriena ikusiko ditugu. Ekliptikarekin aurreikusteko gauza ere bada, eta Maurizio esker, zaldi guztiak hipodromotik ihes egingo izanen dute Kaukasoko mendietatik, han bizi baitira haien ahaideak, basa-zaldiak.

### Gaztainak helduentzat eta txokolata haurrentzat

Ekitaldiekin amaitzeko, zer edo zer jateko prestaturiko dute denentzat, eta ondoren, gaztain jateko joan da Arkaitez elkartean. Esan

### » TXOTXONGILO EGUNA

■ 16:30. Txotxongilo tailerra eskolan.  
■ 19:00. Antzerkia Kultur Etxean.  
■ Ondoren. Gaztain-jatea Arkaitez elkartean eta txokolata beroa haurrentzat.

dira urtean zehar», kultur zinegotziak argitu bezala. Honekin, eta aurrerantz egingo direnekin, herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatu nahi dute. Azken batean, «herriari bizia eman».

Hala, oraingo Festa Batzordeak antolatutako badu ere, aurrera begira, «herritarren proposamenak entzuteko eta kontuan hartzeko prest gaude». Jendearentzat interesgarria den egitarau bat prestatzeko, eta urtean zehar, adin ezberdinetako jendea protagonista izateko.

bezala, hau, haur nahiz helduentzako izango da. Umeentzako txokolata beroa ere izango da. Beraz, herritar guztiak daude honetara gonbidatuta.

**Kultur ekintzak bultzatzen**  
Ekitaldi honekin, kultur ekintzak bultzatzen hasi nahi dute albizturtarrek. Izan ere, orain arte «Kultur Asteaz gain, ekitaldi gutxi egin izan

## S Soka motzean

### «Txoko kuttunen artean San Miguel, asko gustatzen zait»

YOLANDA DE KARLOS »

Plazaola Partzuergoko kudeatzailea



N. U.

NEREA URBIZU

Yolanda De Karlosek (Leitza, 1977) Leitzaldeko turismo bulegoan egiten du lan, Leku-berrin.

**Zuk oraindik egin beharreko bidaia.**  
Argentinara, besteak beste.

**Jendeak derrigorrez bisitatu behar duen lekua.**  
Leitza.

**Aralar edo Plazaola?**

Mementu bakoitzean bat; biak.

**Euskara ez den beste hizkuntza bat?**

Ingelesa gustatzen zait.

**Zure txoko kuttun hori?**

San Miguel, Aralarren, adibidez, asko gustatzen zait.

**Amets bat?**

Nire ametsak betetzea... Askok dauzkat.

**Zenbat aldiz berdina errepikatu beharra?**

Askotan, maiz!

**Egin ez dizudan galdera bat?**

*Zer sentitzen da horrelako galderak erantzuten:* eta orain ez du balio galdera hori egiteak.

bete eta bidali/eraman edo deitu:

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza.  
Araba etorb. 5, behea - 20400 Tolosa

Izena.....Abizenak.....

.....NA.....

Helbidea.....

Herria.....P.K.....

Telefonia.....

k/k [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ] [ ]

P.elektronikoa.....


arreta zenbakia

**902-82 02 01**

(astegunetan 8:30-20:30 / larunbatetan 9:00-19:30)

egin zaitez orain Hitzaren harpidedun eta zure ametsetako bidaia eskura dezakezue!

bi lagunentzako astebeteko egonaldia



**HITZA**  
orain gertuago

kanaria uharteak egipto  
jordania riviera maya  
salvador (brasil)  
costa rica istanbul india

Deiak edo esku orriak jasotzeko azken eguna: abenduak 12  
Zozketaren eguna eta irabazlearen egunkaria: abenduak 20

Abenduaren 11ko 20:00 Loge Organikoa, Hiri Errehabilitazioa eta Kulturarekin lotutako jarduerak. Tolosa, 2007ko Azaroaren 22an. Tolosa, 2007ko Azaroaren 22an. Tolosa, 2007ko Azaroaren 22an.

# Musika kalera Zeziliaren omenez



**Tolosaldea** » Santa Zezilia, musikarien zaindariaren eguna da gaur; horren harira eskualdeko herritan atera ziren kalejiran atzo Loatzoko musika eskolako eta Tolosako musika eskolako ikasleak



Zizurkilen, trikitilariak eta pandero joleak atera ziren kalejiran, Joxe Arregi plazatik abiatuta. I. GARCIA



Ibarran ere trikitixa eta panderoa hartuta, herriko plazatik abiatu ziren Loatzoko musika eskolako ikasleak, herri txokoak animatuz. A. IMAZ



Tolosako musika eskolako Bibolin eta akordeoi jotzaileak kalejiran ibili ziren iluntze aldera. E. EZBIZA

## H Hilberria

### LEUNDA TA ELOLA TARLUZIA

Herenegun hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Izar berri bat piztutzero joan zara Euskal Herriko zeru gainera.



Zure alaba Maria Jesusen lagun,  
bazkide eta langileak



GOIATZ  
2007ko azaroaren  
22an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri  
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK** Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**E Elkarrizketa**

**LUIS M<sup>a</sup> GARTZIA ARTETXE** › Musika Eskolako irakasle erretiratua

**Musika** » Hogeita hamar bat urte klarinete eta saxofoi irakasle bezala aritu ondoren, erretiroa iritsi zaio Luis Mari Gartzia Artetxeri; omenaldia ere egin diote

**JOXEMI SAIZAR**

Gaur, Santa Zezilia, musikariaren zaindaria, bere bizitzako ate bat itxi berri duen Luis Mari Gartzia Artetxe (Villabona, 1947) dakargu HITZARA. Bederatzi urterekin Tolosara etorri zen bizitzera eta Ignazio Mokoroa eta Fausto Balzarekin ikasi zuen musika. Parrokian tiple gisa abesten zuen eta gero tenore izan zen. Gaur egun Tolosako Musika Bandako zuzendaria da.

**Noiz hasi zinen musika ikasten?**

14 urterekin hasi nintzen ofizialki solfeo eta klarinete ikasten. Donostiako Kontserbatorioan ikasi nuen Lopez Hortas maisuarekin. Erregearen Alabardero Bandan jo zuen. Sei mailak bikain notarekin bukatu nituen, soldaduska Loiolan egiten ari nintzela, ikasteko denbora nuela aprobetxatuz. Orduan gai osagarri asko izaten ziren: Kamara musika, Musikaren historia, Estetika, Harmonia, Talde instrumentala...

**Familian ez zara musikari bakarra.**

Nire aitak baxua jotzen zuen Villabonako bandan eta hainbat txarangatan eta Jose Javier anaiak Tolosako Orfeoian abesten du eta Oriá txarangatan jotzen du baxua, tronboia eta helikioa. Aurretik beste abesbatza eta txaranga batzuetan ere aritu izan da.

**Eta noiz hasi zinen klarinete irakasle gisa?**

Aurrena etxean klase partikularrik ematen nituen, baina Kontserbatorio izateko irakasle titulatuak behar ziren eta orduan sartu nintzen, 1976an.

**Irakasle bezala, zein ikasle izan duzu?**

Gaur egun Tolosako Musika Bandan dauden klarinetejole guztiak, besteak beste.

**Zein aldaketa nabarmendu duzu irakasle izan zaren denboran?**

Garai batean musikarako dohaiak zituztenak bakarrik sartzen ziren musika munduan, gaur egun gutxienez jende gehiago hasten da ikusten. Musikak izugarriko gorakada izan du.

**Eta Musika Bandan noiz sartu zinen?**

Musika Bandan 1961ean sartu nintzen, 14 urterekin. Felipe Bernard nire klarinete irakaslea hil zenean, Manuel Valmaseda zuzendariordea pasatu zen zuzendaritzara eta Bandan sartu ninduen. Orduan ere Gorosabelen entsatzen genuen, musika akademia ere bertan zegoelako.



LEIRE MONTES

**«Asko landutako emanaldira jende gutxi biltzeak min ematen du»**

**Zein zuzendari ezagutu duzu Bandan?**

Valmaseda eta Ruiz-Bona. Valmaseda jubilatuta zenean, 1982an. Azterketarako *Marcha Radetzky* eta vals bat prestatu nituela gogoratzen dut. Gero Iparragirre zine-man eman genuen kontzertu batean zuzendu nituen pieza horiek. Orduan zuzendariordeak ez zuen kontzertu bat zuzentzen urtean, orain bezala. Ruiz-Bona kalejira, prozesioa eta Inauterietako Diana batzuetan bakarrik ordezkatu nuen. Eta gaixo jarri zenean, noski.

**Noiz sartu zinen Bandako zuzendariorde?**

Ceferino Rico aurreko zuzendariordea erretiratu zenean, 1982an. Azterketarako *Marcha Radetzky* eta vals bat prestatu nituela gogoratzen dut. Gero Iparragirre zine-man eman genuen kontzertu batean zuzendu nituen pieza horiek. Orduan zuzendariordeak ez zuen kontzertu bat zuzentzen urtean, orain bezala. Ruiz-Bona kalejira, prozesioa eta Inauterietako Diana batzuetan bakarrik ordezkatu nuen. Eta gaixo jarri zenean, noski.

**Noiz izendatu zintuzten zuzendari?**

Ruiz-Bona 1983an hil zen eta nire lehen kontzertua urte horretako San Joan kontzertua izan zen. Plaza Zarran izan zen eta oso urduri nengoela gogoratzen dut.

**Zein izan da zure formakuntza zuzendari gisa?**

Klarinete karrera nuen, ez zuzendaritzakoa. Orduan abesbatza zu-

zendaritzako ikastaroak egiten hasi nintzen, CITek Abesbatza Lehiaketan antolatzen dituenak. Eta gero banda zuzendaritzako ikastaroak ere bai Valencian, Castellon, Alacanten... Enrique Garcia-Asensio eta beste irakasle batzuekin. Gero praktikarekin eta Euskadiko Orkestrako eta beste orkestra batzuetako ahalik eta kontzertu gehienak entzuten ikasten joan naiz. Horrela ere asko ikasten da.

**Zer nabarmenduko zenuke zure zuzendaritza urteez?**

Ni sartu eta hurrengo urtean Ruiz-Bonaren ametsa bete genuen, Tolosako txistulariekin, abesbatzeekin eta dantzariarekin kontzertu bat

egitea. Ondoren gehiagotan ere egin izan ditugu. Bandarekin gauza berriak egiten saiatu gara. Aipatutako gain, haurrentzako kontzertu didaktikoak dultzainero eta pailazoekin, banden alardeetan parte hartu izan dugu eta antolatu ere bai, Madrilera (TVEko Gente Joven programara), Graus (Huesca) eta Gipuzkoako hainbat herritarara irteerak...

**Nola ikusten duzu Banda?**

Soinu asko hobetu du. Eta ez dut nire meritua gisa esaten. Lehen txarangatan asko jotzen zen eta ezpain asko hondatzen zen. Gaizki eta oso fuerte jotzen zen. Orain jendek gehiago zaintzen du bere burua eta gehiago ikasten du. Instrumen-

tala ere askoz ere hobea da garai batekoa baino. Ondo sonatzen du Bandak. Entzuleek hala komentatzen dute behintzat.

**Igandean Santa Zezilia kontzertu berezia duzue.**

Santa Zezilia eguna musikarion eguna da eta lan bereziak prestatzen saiatzen gara. Oso atsegina-

**«Garai batean dohaiak zituztenak bakarrik sartzen ziren musikan; gaur gehiago hasten da»**

**«Orain musikariek gehiago zaintzen dute bere burua eta gehiago ikasten dute»**

**«Omenaldia emanaldi xumea izatea, etxeokoin bakarrik, gustatu zitzaizdan gehiena»**

ria izaten da. Pieza herrikoiak entzutea gustatzen zaio jendeari, baina obra landuagoak ere eskaini behar zaizkio. Asko landutako emanaldi batean jende gutxi biltzeak min ematen du.

**Nolako da Tolosa, musika mailan?**

Oso tradizionala da. Gabongaearen herri osoa doa Bandaren atzetik, adibidez.

**Tolosarra izanik, txarangatan ere joko duzu ezta?**

Oso gutxi. Hasieran Alcoyanon eta orain koadrilarekin, Poca Triparekin, urtero.

**Berbena eta ezkontza taldeetan ere aritu zara.**

Poker taldean hasi nintzen eta gero Zafiro taldera pasatu nintzen, gazteagoak ziren, Tomas Arrizibitak utzi zuenean. Gero euskaraz kantatzen hasi zirenean taldeak izana aldatu eta Oinarri jarri genion. Eganen boom-aren garaiak ziren.

**Taldeetan zein lagunekin aritu zara gehien?**

Avelino Mokoroa, Juanjo Tarragona, Juanito Colmenero, Federico Pildain, Isidro Larrañaga, Jose Karrera, Dioni Crespillo...

**Abesbatzak ere zuzendu izan dituzu?**

Bai. Fernando Aizpurua joan zenean Parrokiako Abesbatzatik deitu ninduten eta zapziedo zortzi urtez zuzendu nuen. Abeslari Lagunak eta Hodeiertz ere zuzendu ditut.

**Nola joan zen aurreko asteko omenaldia?**

Ondo. Ustekabe batzuk izan ziren: nire argazkiak, Arostegitarren pieza, bukaeran bi pieza zuzentzea... Hunkigarria izan zen, ez niretzat bakarrik, entzule asko ere hala zeudela ikusi nuen. Etxeko jendeari, kanpokoari gabe, emanaldi xumea izatea gustatu zitzaizdan gehiena. Gero lankideen arteko bazkarian ere ederki pasatu genuen.

**BANDAREN SANTA ZEZILIA OSPAKIZUNAK**

Musikariaren zaindarien eguna da gaur, Santa Zezilia erromatarra. Betidanik ospakizun ugari egiten dira gaurko egunaren inguruan. Luis Mari Gartzia Artetxek zuzentzen duen Tolosako Musika Bandak ere hala egingo du. Hasteko, gaur iluntzean kalejira egingo du Alde Zaharreko kaleetan zehar. Etzi, ohiko futbol partida jokatu dute egurra eta metalaren artean, ondoren babarrun jatea eta karta jokoak egiteko. Eta igande eguerdian Santa Zezilia kontzertu berezia antolatu du Bandak Leidor artean. Herriko musika taldeak gonbidatzen ditu urtero eta aurreko zuzendari taldek eman dute baiezkioa: Giroarte dultzaina taldea, Udal Txistulari Banda, Maiatz Kordeoi orkestra, Arimaz kamera orkestra, Hodeiertz abesbatza, Isidro Larrañaga akordeoi orkestra eta Tolosako Musika Banda bera. Gainera lehen aldiz harpa, akordeoi eta baxu elektrikoaren laguntza berezia izango du Bandak.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia



**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaldiak

■ **Amezketak.** Diabetes kasuan izan beharreko ardura hitzaldia Ergoneko hirugarren adineko lokalean 18:00etan. Gomendio erabiltzarriak eskainiko dituzte gaixotasunari aurre egiteko.  
■ **Tolosa.** AHT, araztegia eta errausgailuari buruz hitz egingo

dute Kultur Etxean 20:00etan, Kultur Astearen baitan.

### Musika

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandak Santa Zezilia eguna ospatzeko kalejira egingo du Alde Zaharrea zehar, Gorri plaza 20:00etan abiatuta.

■ **Tolosaldea.** Loatzo Musika Eskolako partaideak kalejira ibiliko dira 19:00etatik aurrera, Santa Zezilia eguna dela eta.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Mendia eta naturari buruzko argazki lehiaketako lanak ikusgai egongo dira Oargi mendi elkartearen.

### Deialdiak

■ **Villabona.** Alpi-Manbo-Trango proiektzioa emango dute herriko zenbait gaztek Gurea zinemaren 20:00etan, Aizkardi elkartearen mendi astean. Antolatzailea: Aizkardi mendi elkarte.  
■ **Tolosa.** Titirijai Txotxongilo

Jaialdirako txartelak eta abonoak salgai daude Tolosako Ekinbide Etxeko egoitzan, 7,5 eurotan sarrerak bakoitza eta abonoa 25 eurotan.

■ **Albiztur.** 2008ko egutegia osatzeko Albizturko argazkiak behar dira, zaharrak eta berriak. Albizturko Kultur Etxea z/g. 20.594 Albiztur edo albiztur@udal.gipuzkoa.net-era bidali daitezke, paperean edo digitalean.  
■ **Oresa.** Milagrosaren Bedera-tziurrenako meza bereziak, astean zehar 08:00etan eta jai egunetan 09:00etan; arratsalde 16:30etan.

### Antzerkia

■ **Alegia.** Bakartxoren zapatila

haurrentzako antzerkia Kultur Etxean 17:30ean, Azaro kulturaren baitan.

### Zinema


■ **Tolosa.** *Esto es ritmo* filma eman-go dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-klubean, Santa Zezilia musikarien eguna dela eta.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.  
■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

## A Agurrak



**Urte askoan politte!**  
**Igar Olano Sanchez (Tolosa).**

Gaur urtebete. Muxutxo goxoak izebaren partetik.

# Ezkongaiak 2008-09

Herri Irratia Donostia 1224om/94.8fm

<b>IZARRA BITXITEGIA.</b> Juan XXIII Plaza eta Geltoki 19. Lasarte-Oria. 943-364945. Oparia: urrezko ezkontza-eraztunak eta ezkontza-horniak.	<b>AUZMENDI SASTREA.</b> Bergara, 1-Donostia. 943-424060. Senargaietzako jantziak. Oparia: se-nargai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela.
<b>CODORNIU.</b> 94.4235708. Oparia: Cava Anna Brut Nature 3 kaxa eta Codorniu Taldeko Viña Pomal Selección Aniversario erreserba 2 kaxa ardo beltza	<b>ATALAIA JATETXEA HOTELA.</b> Txingudi merkatal parkeko sarreran. 943.635518. Oparia: bikotearentzat afari-gosaridun gaua hotelean.
<b>SILKEN AMARA PLAZA HOTELA</b> 943-464600 Oparia: Silken kateko hotel batetan 2 pertsonentzako asteburua (2 gau + gosariak).	<b>BAYON.</b> Bergara, 23 - Donostia. 943-425087. Emaztegai jantziak. Oparia: emazte-gai jantziarentzako 300 €-tako erosketa txartela.
<b>ARAETA JATETXEA.</b> Zubieta Auzoa -Araeta-. Telefonoa: 943.362049. Oparia: Ezkontzako txanpaina.	<b>VALLINA.</b> Ezkontzako kotxea. Erabateko luxua guztion eskura. Telefonoa: 943.393.848. Oparia: ezkontz-eguneko kotxea.
<b>SANCHEZ INPRIMATEGIA.</b> Easo, 33. Donostia. 943-465308. Katalogoak eta gonbidape-nak. Oparia: ezkontzarako gonbidapenak	<b>FEEDBAK ORKESTRA.</b> Kalitate goreneko musika mota guztiak. 637-513293. Oparia: ezkontzako emanaldia %20eko beharapenekin.
<b>ELI VELI MEN. PELUQUERÍA-ESTÉTICA HOMBRE.</b> Iparragirre 18, Gros -Donostia-. 943.290623. Oparia: Beharpen txartela.	<b>FOTOGRAFÍA AMAIUR ARGAZKIAK.</b> Usandizaga 2, Gros -Donostia-. 943.321569. Oparia: argazki erreportajearen beharpen txartela.

e-posta... novios@herri-irratia.com  
Ezkongaiak 2008-09 Lehiaketa, "Revista Novias de Euskadi" aldizkariaren kolaborazioarekin

2008-09an ezkontzen bazara, azaroaren 26a aurretik hau bete eta ondorengo helbideren batetara bidali:

**HERRI IRRATIA - DONOSTIA  
GARIBAI 19 20004 DONOSTIA**

Senargaiaren izen-abizenak:	Tel.:
Helbidea:	Posta-Kodea:
Emaztegaiaren izen-abizenak:	Tel.:
Helbidea:	Posta-Kodea:
Ezkontzaren gutxi gora-beherako data:	

**G**

Azaroak 24, larunbata  
**OIARTZUN, Elorsoro** Koroledgia  
18:00etan

Amaita Agirre Iker Zubeldia  
Iñigo Manizidor "maio" Xabier Siskia  
Jon Maia Arkaitz Diartzabal

www.gipuzkoa.com **hitza**